# Eguraldi ona, jende asko eta giro ezin hobea 2025eko San Sebastian egunean

*167 helduen danborrada eta 49 haur danborrada izan dira normaltasunez igaro den eguneko protagonista nagusiak*

2025eko San Sebastian eguna girorik hoberenarekin igaro zen, eguraldi ona egin zuen egunaren zati handienean, milaka lagunek urtarrilaren 20az gozatu ahal izan zuten, eta festa izan zen jardunaldiaren protagonista nagusia.

Eneko Goia Donostiako alkateak eguneko 24 orduetan bizi izandako jai-giro ona azpimarratu du: "San Sebastian egunak egun seinalatua eta oso maitatua izaten jarraitzen du donostiarren egutegian".

Goiak adierazi duenez, "belaunaldiz belaunaldi, jaiarekiko atxikimendua bere esentzia berarekin transmititzen jarraitzen da: haurrek Haur Danborrada betetzen dute; nerabeek eta gazteek Konstin gozatzen dute eta Alde Zaharrean festan parte hartzen dute; helduek gero eta gehiago parte hartzen dute danborradetan, eta egunak ospakizun-osagai bat izaten jarraitzen du lagunekin eta familiarekin".

Osagai horiek guztiek, Goiaren ustez, "San Sebastian egunak bere etorkizuna bermatuta izatea eragiten dute, hiriak bere egiten jarraitzen duelako. Energia hori guztia igartzen da banderaren Igoeratik Jaitsieraraino, eta horrek baikorrak izatera garamatza gure egunaren orainaz eta etorkizunaz".

Alkateak azpimarratu du ez dagoela gertakari esanguratsurik, eta horrek agerian uzten duela segurtasun operatiboek eta antolakuntzak bikain funtzionatu zutela. Halaber, eskerrak eman dizkie udal langileei, Donostiako Festakeko langileei, Udaltzaingoari eta Ertzaintzari, suhiltzaileei, zerbitzu teknikoei eta garbiketa-zerbitzuei, "ehunka pertsonak egiten duten lanagatik, gainerakook egun handi batez gozatzeko aukera izan dezagun".

## Balantzea

Eguneko ekitaldirik esanguratsuenetara bertaratzea oso handia izan da aurten ere. Hala, festaren hasierak eta amaierak beti bezala bete zuten Konstituzio Plaza, baina aurtengo berrikuntza nagusia Donostiako kaian jarritako pantaila handia izan da. Bertan, 2.000 pertsonak banderaren igoera zuzenean ikusteko aukera izan zutela kalkulatzen da.

Azpimarratzekoa da belaunaldi batetik bestera aldatu egin dela igoera- eta jaitsiera-ekitaldietara joateko joera; izan ere, jaiaz gozatzeko gogoa duten gazte eta oso gazte diren pertsona asko daude ekitaldi horietan. Aipagarria da, halaber, errepertorioko hainbat abesti abesteko grina, bereziki Donostiako martxaren letra.

Telebistako publikoari dagokionez, ETBren igoeraren emanaldiak % 18,8ko audientzia izan zuen, eta 118.000 ikusle desberdinek bat egin zuten jaiaren hasierako ekitaldiaren emanaldian. Urtarrilaren 19ko 22:30etik 20ko 00:45era bitartean, 35.000 pertsonak ikusi zuten, batez beste, banderaren igoeraren ekitaldia etxetik. 00:00etan, Gaztelubidek San Sebastian Martxa interpretatu zuenean, 66.000 ikusle ari ziren ETB1 ikusten, % 15,2ko audientziarekin.

Baina ikusle gehien erakartzen dituen ekitaldia, zalantzarik gabe, Haur Danborrada da, eta aurten 32.000 pertsona inguruk ikusi zuten Alderdi Ederren zeuden 45 konpainietako 4.625 kideak desfilatzen.

Helduen danborradei dagokienez, aurten mugarri izan da festan berdintasunez parte hartzeko bidean: danborraden % 98,2 mistoak dira jada, *Amigos del Antonio Bar, Amigos del Europa eta Gizartea* gizonezkoen kategoriarekin. Gainera, 2026an *Club Cantabrico*ko danborrada ere mistoa izango da; beraz, danborrada mistoen ehunekoa % 98,8koa izango da.

Aurten zazpi danborradak hartu dute parte lehen aldiz: Altzako H*arri Berri – Oleta Danborrada*, Amara-Riberas-Loiola Morlans inguruko *AMPA Mary Ward Donostia,* Antiguoko *Antigua-Luberri Danborrada, Coro Easo Abesbatza* eta *C.D. Fortuna K.E. Danborrada,* eta Alde Zaharreko *Itzalpe Danborrada eta Ur Kirolak.*

Joan den urtetik Udalak urteurren "biribila" (25-50-75... urte) betetzen duten danborradei egiten dien errekonozimendua indartu egin da, gorbata bat ematen baitzaie, eta gorbata horretan fundazioaren urtea eta urteurrenaren urtea jasotzen dira. Aurten, gorbatak Groseko *Kondarrak* (75 urte) eta *Benta Berriko Lagunak*, *Club Ciclista Donostiarra, Gaztedi, Parroquia María Reina-Egiako Tolosarrak, Tamborrada Club Cantábrico* y *Zubi Mus* (25 urte) danborradei banatu zitzaizkien.

Aurtengo beste berrikuntzetako bat Gros trafikoarii itxi izana izan da. Horri esker, auzoko danborradek eguna modu seguruagoan gozatu ahal izan zuten, iaztik hiriaren erdigunean egiten den bezala.

Aurtengo edizioari amaiera emateko, 24 orduz Konstituzio plazan egon den Bandera Club Vasco de Camping-i ematea besterik ez da falta.

Donostia, 2025eko urtarrilaren 21a

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

## Buen tiempo, gran cantidad de público y un ambiente inmejorable en el día de San Sebastián de 2025

*167 tamborradas de personas adultas y 49 tamborradas infantiles han sido las grandes protagonistas de una jornada que ha transcurrido con normalidad*

El día de San Sebastián de 2025 transcurrió con el mejor ambiente y miles de personas pudieron disfrutar de un 20 de enero en el que predominó el buen tiempo durante la mayor parte de la jornada y la fiesta fue la gran protagonista.

El alcalde de Donostia / San Sebastián, Eneko Goia, ha destacado el buen ambiente festivo vivido durante las 24 horas del día, lo que demuestra a su juicio “que el día de San Sebastián sigue siendo un día señalado y muy querido en el calendario de los y las donostiarras”

Goia ha valora además que “generación tras generación, el apego a la fiesta se sigue transmitiendo con su misma esencia: niños y niñas desbordan la Tamborrada Infantil; adolescentes y jóvenes disfrutan en la Consti y participan de la fiesta en lo Viejo; los adultos participan cada vez en mayor número en las Tamborradas, mientras que el día sigue teniendo un componente de celebración con amigos y familia”.

Todos estos ingredientes hacen, según Goia, “que el día de San Sebastián tenga su futuro garantizado, porque la ciudad la sigue haciendo suya. Toda esa energía se nota desde la Izada hasta la Arriada, y es lo que nos hace ser optimistas sobre el presente y el futuro de nuestro día”.

El alcalde ha subrayado la ausencia de incidentes significativos, lo que pone en evidencia que la organización y los operativos de seguridad funcionaron a la perfección. También ha agradecido a los trabajadores municipales, personal de Donostiako Festak, Guardia Municipal y Ertzaintza, Bomberos, servicios técnicos y de limpieza, por todo el trabajo que realizan “cientos de personas para que el resto podamos disfrutar de un gran día”.

### Balance

La asistencia a los eventos más significativos de la jornada ha sido muy elevada un año más. Así, el inicio y el final de la fiesta llenaron como siempre la Plaza de la Constitución, pero la gran novedad de este año ha sido la gran pantalla instalada en el muelle donostiarra, donde se calcula que 2.000 personas pudieron disfrutar de la emisión en directo de la izada de la bandera.

Cabe destacar el cambio generacional en la asistencia a los actos de izada y arriada, que cuentan con un porcentaje muy elevado de personas jóvenes y muy jóvenes con ganas

de disfrutar de la fiesta. También es reseñable el fervor con el que se entonan diferentes canciones del repertorio, especialmente la letra de la marcha de San Sebastián.

En cuanto al público televisivo; la emisión de la izada por ETB llegó a contar con un 18,8% de share, y 118.000 espectadores diferentes conectaron durante la retransmisión del acto de inicio de la fiesta. Entre las 22.30 horas del día 19 de enero y las 00.45 horas del día 20, un promedio de 35.000 personas vieron el acto de la izada desde sus casas. A las 00:00 horas, momento en el que Gaztelubide interpretó la Marcha de San Sebastián, 66.000 espectadores estaban viendo ETB1, con un 15,2% de share.

Pero el acto que sigue atrayendo a la mayor cantidad de espectadores es sin duda la Tamborrada Infantil, con una asistencia de aproximadamente 32.000 personas que vieron desfilar a los 4.625 integrantes de las 45 compañías desplegadas en Alderdi Eder.

En lo relativo a las tamborradas de personas adultas, este año ha marcado un hito en el camino hacia la participación igualitaria en la fiesta: el 98,2% de las tamborradas son ya mixtas con la incorporación a esta categoría de las masculinas *Amigos del Antonio Bar, Amigos del Europa* y *Gizartea*. Además, el año 2026 la tamborrada del *Club Cantábrico* pasará también a ser mixta, por lo que el porcentaje de tamborradas mixtas se elevará hasta un 98,8%.

En cuanto a las nuevas incorporaciones se refiere, han sido siete las tamborradas que por primera vez han tomado parte en la fiesta: *Harri Berri – Oleta Danborrada* de Altza, *AMPA Mary Ward Donostia* de la zona de Amara-Riberas-Loiola Morlans, *Antigua-Luberri Danborrada, Coro Easo Abesbatza* y *C.D. Fortuna K.E. Danborrada* del Antiguo e *Itzalpe Danborrada* y *Ur Kirolak* de la Parte Vieja.

El reconocimiento que desde el pasado año realiza el Ayuntamiento a las tamborradas que cumplen un aniversario "redondo" (25-50-75…años) este año se ha visto reforzado por la entrega de una corbata en la que se recogen el año de fundación y el año del aniversario. Este año, las corbatas fueron entregadas a las tamborradas *Kondarrak* de Gros (75 años) y *Benta Berriko Lagunak*, *Club Ciclista Donostiarra, Gaztedi, Parroquia María Reina-Egiako Tolosarrak, Tamborrada Club Cantábrico* y *Zubi Mus* (25 años).

Otra de las novedades de este año ha sido el cierre de Gros al tráfico, que permitió que las tamborradas del barrio pudieran disfrutar de la jornada de manera más segura, al igual que se hace desde el pasado año en el centro de la ciudad.

Para cerrar esta edición, sólo falta entregar la Bandera que durante 24 horas ha ondeado en la plaza de la Constitución al Club Vasco de Camping en el 75 aniversario de su creación.

Donostia / San Sebastián, 21 de enero de 2025